

Garazi Mujika Lasa

D maila • 3 aipamena

Kaixo!!

Garazi Mujika Lasa naiz 13 urteko Beasaindarra. Andramendi ikastolan ikasten dut eta nire zaletasunak, dantza, musika eta kirola dira. Bestalde, irakurtzea eta bertsoan aritzea gustoko ditut.

Liburuak irakurtzetik gehien gustoko dudana, bakoitzak bere istorioa egin dezakeela liburu berdin batekin da. Hau da, irakurtzean bakoitzak bere imaginazioarekin bere buruan irudikatzen ditu bertako pertsonaiak, pasarteak...

Sari hau irabazteak ilusio handia egin dit. Urtero sari banaketako irabazleei txalo egiten aritzen naiz, eta aurren niri tokatzen baitzait txaloak jasotzea.

Gehiegi luzatu gabe espero dut nire istorioa gustatzea!!



IPUINAREKIN IZANDAKO GORABEHERAK

Badakit ez dela istorio bat hasteko modurik egokiena, baina asperturik nago betiko hasierez; *“Behin batean, egun eguzkitsu batean, etxe azpiko parkean geundela...”* ez ditut gogoko!!

Bueno, ahaztu baino lehen, ni Maria nauzue eta egia esaten hasita, ez dut batere gogoko istorioak idaztea. Gainera, gure herrian, Labrazan, urtero egiten da idazlehiaketa bat eta nazkaturik nago!! Horretarako, eskolan beti eskatzen digute orri bat edo gehiagoko ipuin bat egiteko eta ez daukat ideiarik ere nondik hasi. Aste bat falta da ipuina entregatzeko, eta oraindik ez dut ipuinerako gaia ere asmatu. A ze zoramena!!

Orduak pasa eta pasa doaz ordenagailu aurrean nagoelarik baina nik ez dut dokumentuan ezertxo ere idatzi. Ez zait ezer etortzen burura, eta ez dakit zeri buruz idatzi. Garbi dudan bakarra zerbait ezberdina egin nahi dudala da. Ez dakit zer oraindik, baina zerbait originala izango dela garbi dut.

Asteko lehen eguna da eta eskolara sartu naiz. Nire lagun guztiek badute ideiarekin bat eta beste batzuek jada bukatua dute lana. Ez dakit nola antolatu nire burua, baina zerbait egin beharra dut aste batean istorioa idazteko. Klasean nago eta denbora libre utzi didatenez, Interneteko bilatzailean “nola idatzi istorioak” bilatu dut. Bertan, ideia batekin hasteko jartzen zuen, baina hori banekien nik lehenagotik... ideiarik ez badut nola nahi duzu ba istorioa idazten hastea! Ordenagailuarekin haserretzen hasi naiz, eta oso normala ez den arren ez da lehenengo aldia hau gertatu zaidana!

Orduak pasa ahala, azkenean iritsi da errekreoko ordua. Atarian lagun guztiak beren istorioei buruz hitz egiten aritu dira, eta nik ideiarik ere ez dudanez, entzutea tokatzen zait. Batek berari eta bere lagun bati gertatutako maitasun istorio bat kontatzen du, beste batek bere txikitako ametsak, eta beste batek eguneroko bat idazteko asmoa dauka.

Eta orduantxe etorri zait ideia hau burura: niri benetan gertatutako istorio bat kontatu dezaket eguneroko modura!

Ettxera etorri naiz, eta ipuina idazten hastean, ideia pila bat izan ditut buruan; egia esan, inspirazio puntu hori ez dut sekula izan. Baina aprobetxatzen hasita, burura etorritako ideiekin orri oso bateko istorioa egitea lortu dut. Ideia gehiago izan ditut, baina entrenamendura joan behar izan dudanez, hainbat *post-it*etan apuntatu ditut.

Hurrengo egunean, errekreoko orduan, nire ideia azaldu diet lagunei:

- Atzo arratsaldean etxera itzuli eta sekulako ideia zaparrada izan nuen - azaldu diet.

- Eta zeri buruz egitea pentsatzen duzu?? - galdetu dit Maddik interes guztiarekin.

- Ba zerbait originala egitea pentsatzen dut, baina oraingoz dituden ideien artean

gehien gustuko dudana, niri benetan gertatutako istorio bat eguneroko modura kontatzea da.

- Ez da posible!! nik ere ideia bera izan dut!!! - bota dit Elenek, harrituta eta minduta -. Bada, jakin ezazu, dagoeneko lana entregatua dudala!

Ez da posible! Sekula ez dut horrelako ideia originalik izan eta hori gutxi ez eta entregatua zuela ere esan dit. Eta zer egingo dut orain? Lur jota nago... Kaka zaharra! Arratsaldeko ideia guztiak pikutara!! Hurrengo klase orduetan pentsatzen egon naiz, baina ez zait ideia berririk bururatu... eta ez dakit zer egin!

Klase-tarte batean Jone etorri zait, eta honako hau esan dit:

- Lasai egon Maria, zure eta Eleneren istorioek ideia berdina izan arren, ez dago zertan istorioa berdina izan. Biok gara pertsonak, baina zu Maria zara eta ni Jone. Ikusten duzunez, gauza guztiek dute euren ezberdintasuna. Egon zaitez lasai!!

Eta orduan ohartu naiz nire istorioaren aurreneko esaldiaz: "*Garbi dudan bakarra zerbait desberdina egin nahi dudala da.*" Ba horixe izan zen egin nuena: zerbait ezberdina! Nik egin beharreko istorioak, nik egin beharreko istorio batetaz hitz egitea baitzen nire buruari jarri nion baldintza nagusia!

Lortu ditut bai ideia, eta baita eman nahi nion ikuspegi ezberdina ere! Falta zaidan bakarra, istorioa modu ezberdinean bermoldatzea eta amaiera bat ematea dira.

Berriz ere *post-it* bat hartu eta hau idatzi dut:

Eta orain, esan bezala, *post-itekoa* ipuinera pasatzea besterik ez zait falta. Horretarako, ikastolako denbora libre guztiak aprobetxatzen saiatu naiz eta azkenean lortu dut ipuin haxe bukatzea!!!

Entregatu, eta bertan bukatu zaizkit ipuinarekin izandako gorabeherak.

P.D: Irakurri duzun istorio haxe da niri benetan gertatu zaidana. Ez dago urrutira joan beharrik istorio bat garatzeko, ezta?